

5. Azkue jaunak Zigoitia'ko euskalkiak zer era ta taju dituen ederki adierazi digu.

Ta beste gairik izan ez-da otoitzez bukatu da batzaraldia.

Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian, 1924 'ko Urriaren 30 'an.

Azkue jauna maipuru dutela euskaltzain abek bildu dira : Urkijo, Kanpion, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza eta Lakonbe.

Otoitzez asi da, oitura danez, batzaraldi au.

1. A. Intzak beñi abek adierazten ditu : Iruña'ko egunari batek txalotzen ditu antxe izan diran euskal-azterketak, bai *Normal'an*, bai ere apaiz-ikastetxean. Seminario'ko ikasle batzuek euskal-lan politikak egin dituzte joan dan udaran, Napañoa'ko toki-izen batzuek piloturik. Lanik edereña Narbarte'ko apaizgai batek egiña da. Euskal-lanak eñi abei dagozkie : Egiñeta, Muzkiz, Añaiza, Elizondo, Añiba, Azkarate, Atalo, Leiza, Zugaramurdi, Aldaz, Laraintza, Lezaeta, Zubieta, Bera, Uizi, Gofiti ta Narbarte. Erabaki da : gazte langile abei, sarizat bezela, euskal-liburu batzuek ematea. Aita Intza berak esan digu : zer izan diran Napañoa'n egin diran euskal-jayak : Narbarte'n Lakoizketa'ren oroitaría azaldu danean ta Lekunbeñi'n. Azkeneko eñi ontan itzaldi bikañak egin dituzte Oñeaga'ko Abade edo Apaiz nagusiak eta gure Euskaltzainburuak.

Egintza atsegin aben beñi gogoz eta pozik entzun zaio Aita Intza'ri ta entzun ondoren Euskaltzaindiak txalo beroak igortzen dizkio.

2. Aita Intza berak adierazi du : Narbarte'ko Alkate Jose Oteiza jaunak, ango umeai erakutsi nai die-la landare eta belarñen ikasbidea, zein on eta zein txar diran jakiñarazteko. Nai luke Alkate jaun onek zer-baiten laguntza : edo liburuz edo beste gayez, al dan erexen gauza abek umeai erakusteko. Euskaltzaindiak beronek lezaken laguntza agintzen dio.

3. Euskaltzaindiak erabaki du : Orain artean argitaratu diran eskola liburuak biltzea. Oretarako euskaltzain bakoitzak, bere alderdian idoro lezakena ur'engo batzaraldirako bekar.

4. *Euskeraren adiskidea*'z. Ez dira oraindik bildu ta ez daukate, euskaltzainburuak dionez, biltzeko adorerik ere.

5. Urkijo jaunak Odon Apraiz jaunaren oar batzuek irakuñi ditu. Onek udaran egin duen lanaren adibide bezela datoz oar oiek. Lana Bidasoaz aruzko *Erizkizundi-Irukoitza*'ri dagokio:

Apraiz jaunak ez du nai izan bere lanaren saririk. Ematen bazaio, beste euskal-lanetan eralkiko duela dio. Euskaltzaindiaren eskerak.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta ototzez bukatu da batzaraldia.

Donostia'n, Aldundi - Jauregian, 1924'ko Urriaren 31'an.

Aur'eko batzaraldian bildu diran euskaltzain berak, A. Intza ezik, datoz.

1. Azkue jaunak bere *Morfologia* irakuñi du eta